

**LOIOLA 2022ko Uztailaren 14a**  
**Fededunen Otoitza**

***Apezak :** Haurrideak, ez dezakegu Jainkoa maita gure anaiaz oroitu gabe.  
Elizaren haurrak jende guzien haurride baigira,  
otoitz egin dezagun mundu guziarentzat.*

1/ Bideetan dabilzan pertsona guzientzat,  
bizi egoki baten bila, toki baketsu baten bila.  
Ate bat zabalik, geriza bat idekirik aurki dezatela,  
bai eta zure dizipulu direnen sustengu konkretuak,  
zure osperako Jauna,  
Egin dezagun otoitz

**Errepika : Onar Jauna egungo otoitza. (bis)**

2/ Beilari giren guzientzat.  
Loiolako San Inaziok bere buruari “beilari” deitzen zion eta bere biziaren harat  
hunatak “beilariaren kontakizuna” deitzen den liburuan aurkitzen dira.  
Jainkoaren ikertzaileek Haren hitza entzun dezaten, barna dezaten, eta erne izan diten  
beren biziko egoera guzietan Haren zerbitzatzeko.  
Egin dezagun otoitz

**Errepika : Onar Jauna egungo otoitza. (bis)**

Duela 500 urte San Inazio konbertitu zen, Iruñan kolpatu izan ondotik.  
Jaun xarmagarri izan nahikaritik, Kristoren jarraitzaile bihurtu zen, bere biziko aukera  
guzietan Jesus lehen ezarriz.  
Haren laguntzarekin, gure Eliza eta guhaur konbertitu gaitezen  
Egin dezagun otoitz

**Errepika : Onar Jauna egungo otoitza. (bis)**

***Apezak :** Jauna, zuk denak badakizkizu,  
eta ikusten dituzu gure bizi huntako beharrak oro.  
Zutan sinesten dutenen otoitzak onar itzazu,  
eta haien galdeeri ihardets.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. **Amen.***